

2023MBES0010

## **ALKATEAREN BANDOA**

### **2023KO SAN PEDRO ETA INTXAURTXUETA AUZOETAKO JAIETAN FERIA- ATRAKZIOEK BETE BEHARREKO BALDINTZEI BURUZKOA.**

Alkateak 2023ko maiatzaren 22ko 820 zenbakidun Alkate Erabakiz onartu zituen baldintzak oinarri bezala hartuta, Eskoriatzako San Pedro eta Intxaurtxuetako jaietan, barraka-feria jartzeko baimenak emateko honako baldintzak onartu dira.

#### **1. LURZORUA.**

Barraka-feria Intxaurtxuetako parkean jarriko da.

Udalak lurra doan erabiltzeko baimena eman ahal izango die atrakzio eta/edo instalazio batzuei, baldin eta prezio murriztuak eta Udalak proposatutakoak eskaintzen baditzute.

Gainerako atrakzio edo instalazioei udal ordenantza fiskalean ezarritako tasa aplikatuko zaie.

#### **2. ESKAERA EPEA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.**

2.1. Atrakzio edo instalazio bat jartzeko idatzizko eskaera formala egin behar da, hura jartzeko aurreikusitako eguna baino gutxienez hilabete lehenago.

2.2. Eskaerarekin batera honako dokumentazioa aurkeztu beharko da (dokumentazio orijinala atrakzioaren arduradunak izan beharko du, atrakzioa instalatu aurretik udaltzaingoan aurkezteko):

- Eskaera egiten duen pertsonaren nortasuna identifikatzeko agiria.
- Gizarte Segurantzaren autonomo gisa alta emanda dagoela ziurtatzen duen agiria eta azken ordainagiria.
- Jarduera ekonomikoetan alta emanda dagoela ziurtatzen duten agiriak.
- Erantzukizun zibileko asegurua kontratatua duela egiaztatzen duen agiria (poliza eta azken ordainagiria).
- Elikagaiak saltzeko, janari-erabiltzaile agiria (hala badagokio).
- Instalazioaren urteko azterketaren ziurtagiria, funtzionamendurako egokia dela ziurtatzen duena.
- Atzerritarren kasuan, lan-baimena.

2.3 Muntaia egiten den momentuan, jarriko diren barraketarako eta etxebizitzetarako argindarra kontratatu izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko da.

2.4 Zabaldu aurretik, honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- 10.atalean adierazitako ziurtagiria.

|                     |   |                    |            |   |
|---------------------|---|--------------------|------------|---|
| <b>Kodea/Código</b> | KO23/0006   | <b>Udala/Ayto.</b> | Eskoriatza |  |
| <b>CUDO</b>         | 000.0034.AAAADQJH.E.T930  |                    |            |   |
| <b>URL</b>          | <a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/34/AAAADQJHE.T930">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/34/AAAADQJHE.T930</a> |                    |            |   |

Dokumentu honen baliotasuna egiazatzeko goiko Webgunean sar zaitez edo QR irudia irakurri ezazu/Para verificar la validez de este documento acceda a la WEB o lea la imagen QR

- Barraken kasuan, muntaketa amaierako ziurtagiria.

### **3. FIDANTZA.**

Baimendutako esparruan jarriko den atrakzio edo/eta etxebizitza bakoitzeko 300 euroko fidantza jari beharko da, instalazioa jartzea baimentzen den eguna baino gutxienez 5 egun lehenago.

Fidantzak baimeneko baldintzak ez betetzeari erantzungo dio; bai barraka-feria esparruan gertatutako kalteei eta baita etxebizitzak jartzeko esparruan gertatutakoei ere. Halakorik gertatuz gero, interesdunari entzunaldia eskain ondoren, fidantza konfiskatu ahal izango da.

Fidantza instalazioak desmuntatu eta hurrengo 30 laneguneko epean itzuliko da, hala badagokio.

### **4. ATRAKZIOAK ETA ETXEBIZITZAK INSTALATZEKO EGUTEGIA.**

- **Instalazioa:** Atrakzioak eta etxebizitzak 2023ko irailaren 7ko 09:00etatik aurrera sartu ahal izango dira hartarako prestatutako esparruetan. Barrakak Intxaurtxuetako parkean ipiniko dira.
- **Atrakzioak irekitzea:** 2023ko irailaren 8ko eguerdiko 12:00etatik aurrera zabaldu ahal izango dira.
- **Itxiera:** 2023ko irailaren 10eko 22:00etan itxita egon beharko dira atrakzioak.
- **Esparrua hustea:** 2023ko irailaren 11tik aurrera eta beranduenez irailaren 12ko 17:00etarako, atrakzioak nahiz etxebizitzak jartzeko erabilitako esparruak hutsik eta libre geratu beharko dira. Esandako egun eta ordutik aurrera, esparru horietan ezingo da geratu feriako instalaziorik, ezta atoi, kamioi edo antzeko elementurik ere.

Feriako atrakzioak muntatzen diren bitartean, uneoro, atrakzio bakoitzeko ordezkari bat egongo da bertan, udal langileek helarazten dioten edozein errekerimenduren aurrean erabakiak hartzeko behar adinako agintea izango duena.

### **5. FUNTZIONAMENDU- ETA SOINU-ORDUTEGIA.**

Megafonia eta musika, egunero eta gehienez, goizeko 1:00ak arte egongo da martxan.

Instalazioak beranduenez goizeko 3:00retan itxiko dira.

### **6. INSTALAZIO ELEKTRIKOA.**

Barraketan, aparatueta nahiz etxebizitzetan instalazio elektrikoa jartzeko gestio guztiak eta baita kostua ere, eskatzaileak bere gain hartu beharko ditu.

### **7. PREZIOAK.**

Lurzorua okupatzeko tasa ordaindu ez duten instalazioek, bidaia bakoitzeko 2€-ko prezioa kobraztuko dute, 3 bidaia 5 € eta 7 bidaia 10€.

### **8. EUSKARA.**

EUSTATen 2021eko datuen arabera, Eskoriatzan euskaldunak + ia-euskaldunak biztanleria osoaren %76,9 direla kontuan izanik, eta bereziki haurren eta familien euskararen erabilera eragiteko helburuarekin, honako baldintzak bete behako dira:

a) Errotulazioa

Barraka, atrakcio edo salmenta postuetako errotulazio guztsia euskaraz edo ele bietan izan beharko da. Ele bietan jartzen den kasuetan, euskarari lehentasuna eman beharko zaio. Errotulazioa euskaratzeko laguntzarik behar izanez gero, Eskoriatzako Udaleko euskara zerbitzuaren laguntza jaso ahal izango da.

b) Musika

Emititutako musika %75 euskaraz izango da. Gainera, emakumeentzako iraingarriak eta baztertzaileak diren musika eta kantuak ezingo dira ipini, ezta jokabide okerren aldeko hitzak dituztenak ere.

Hemen esandakoa betetzen laguntzeko, playlist hauek eskaintzen dira:

HELDUAK EUSKARAZ <https://labur.eus/wpE4y> eta <https://labur.eus/8BM4x>

HAURRAK EUSKARAZ <https://labur.eus/zGs7Z> eta <https://labur.eus/vbMtt>

BELDUR BARIK kanpaina <https://labur.eus/qwHMn>

**9. IRUDITEGIA ETA PUBLIZITATEA.**

Atrakcioak nahiz etxebitztzak kokatzeko esparruetan erabat debekatuta dago eduki sexista, xenofobia, politikoa, erlijiosoa, etnikoa edo pertsonen duintasunaren aurkako irudiak erakustea eta edozein motako iragarki, erakustaldi, propaganda eta/edo publizitate egitea. Halakorik egonez gero, eta edukia iraingarria eta/edo duintasunaren aurkakoa dela irizten bada, enpresaren ardura izango da eduki horiek behar bezala tapatzea.

**10. SEXU-DELITUEN ZIURTAGIRIA.**

Feria esparruan ipiniko diren atrakzioetan lan egingo duten pertsona guztiek Sexu Delitugileen Erregistro Nagusiak emandako sexu-delituuen ezezko-ziurtagiria aurkeztu beharko dute, atrakzioaren irekiera eguna baino gutxienez 5 egun lehenago. Ziurtagiri horrek gehienez 6 hilabeteko antzinatasuna izango du. (*8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralarena*).

**11. ETXEBIZITZAK JARTZEKO INGURUA ZAINTEA.**

Etxebitzitzak jartzeko utziko den esparrua eta ingurua, txukun eta garbi mantendu beharko dira uneoro.

**12. SARIAK.**

Debekatuta geratzen da animaliak saldu edo sari gisa banatzen dituzten instalazioak jartzea.

Halaber, berariaz debekatzen da sari gisa ematea material pornografikoa, suziriak, petardoak, bolak jaurtitzen dituzten pistolak, labanak eta antzekoak; baita tabakoarekin edo alkoholarekin zerikusia duten elementuak ere.

**13. ZIGORRAK.**

Eskoriatzako Udalak bando honetan jasotako edozein baldintza ez betetzea zigortzeko ahalmena du. Zigorra jarduerari nahiz titularrari egotzi ahal izango zaio, eta urte 1etik 3 urtera arteko epean berriro Eskoriatzako barraka-ferian jartzeko baimena ukatuz gauzatuko da.

#### ALKATEA

## **BANDO DE LA ALCALDÍA**

### **SOBRE CONDICIONES A CUMPLIR POR LAS ATRACCIONES DE FERIA EN LAS FESTAS DE LOS BARRIOS SAN PEDRO E INTXAURTXUETA 2023.**

**Teniendo como punto de partida la Resolución Nº 820, de fecha 22 de mayo de 2023, esta Alcaldía ha aprobado las condiciones que regirán la concesión de autorizaciones para la instalación de atracciones de feria en Eskoriatza durante las próximas fiestas de los barrios de San Pedro e Intxaurtxueta.**

#### **1. RECINTO.**

El lugar habilitado para la disposición del recinto ferial será el parque de Intxaurtxueta.

El Ayuntamiento podrá autorizar el uso del terreno gratuitamente a algunas de las atracciones y/o instalaciones a condición de que oferten precios reducidos y propuestos por el ayuntamiento.

Al resto de atracciones o instalaciones se les aplicará la tasa establecida en la ordenanza fiscal municipal.

#### **2. PLAZO PARA LA SOLICITUD Y DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR.**

2.1 Para poder instalar una atracción se debe cursar una solicitud por escrito con al menos un mes de antelación a la fecha prevista para su colocación.

2.2 Junto con la solicitud, deberá presentarse la siguiente documentación (la documentación original deberá tenerla el responsable de la atracción, para presentarla a la policía municipal antes de instalarla):

- Documento identificativo de la persona solicitante.
- Certificado de estar dado de alta en la Seguridad Social como autónomos, además del último recibo.
- Documentación acreditativa del alta en actividades económicas.
- Documento de haber contratado el seguro de responsabilidad civil (póliza y último recibo)
- Para la venta de alimentos, certificado de manipulador de alimentos (en su caso).
- Certificado de la revisión anual de la instalación que acredite que es apta para su funcionamiento.
- Permiso de trabajo en caso de extranjeros.

2.3 En el momento del montaje: deberá presentarse contrato con la empresa eléctrica para los días solicitados, de las barracas y las viviendas.

2.4 Antes de la apertura: deberá presentarse la siguiente documentación:

- Certificado exigido en el apartado 10.
- En el caso de las barracas, certificado final de montaje.

#### **3. FIANZA.**

Se deberá depositar una fianza de 300 euros por cada atracción con una antelación mínima de 5 días al de la fecha en que se autoriza instalar la misma y/o la vivienda en el recinto habilitado al efecto.

Dicha fianza responderá del cumplimiento de todas las condiciones a las que queda sujeta la autorización, así como de la restitución al estado inicial de los elementos que hubieran sufrido desperfectos tanto en el recinto feria como en el espacio utilizado para la vivienda. En caso de darse dichas circunstancias la fianza será incautada previa audiencia del interesado.

La fianza será devuelta si procede dentro de los 30 días hábiles siguientes al de la fecha en que se haya desmontado la instalación.

#### **4. CALENDARIO DE INSTALACIÓN DE ATRACCIONES y VIVIENDAS.**

- **Instalación:** Tanto las viviendas como las atracciones podrán entrar a los recintos desde las 09:00 horas del día 7 de setiembre de 2023. Las barracas se colocarán en el parque de Intxaurtxueta.
- **Apertura atracciones:** 8 de setiembre de 2023 a partir de las 12:00.
- **Cierre:** 10 de setiembre de 2023 a las 22:00.
- **Desalojo:** El desalojo se podrá iniciar a partir del 11 de setiembre de 2023 dejando el terreno completamente libre, y a más tardar, para las 17:00 horas del 12 de setiembre de 2023. A partir de dicha hora y día no podrá quedar ninguna instalación de feria, remolque o camión etc. perteneciente a los feriantes en los recintos utilizados.

Durante el montaje de las diferentes atracciones de feria, en todo momento habrá un representante de cada atracción con autoridad suficiente para la toma de decisiones ante cualquier requerimiento que le sea transmitido por personal municipal.

#### **5. HORARIOS FUNCIONAMIENTO APARATOS Y SONIDO.**

Megafonía y música todos los días hasta las 1:00 horas de la mañana del día siguiente.

Cierre de las instalaciones todos los días a las 3:00 de la mañana del día siguiente.

#### **6. INSTALACIÓN ELECTRICA.**

Todas las gestiones, así como el coste de las necesidades que las instalaciones tengan para el funcionamiento de los aparatos y de la feria, así como los de las viviendas en materia de instalación eléctrica, serán a cuenta del solicitante.

#### **7. PRECIOS.**

Las instalaciones que no han abonado tasa por ocupación de suelo observarán un precio de: 2,00 € por viaje, 5€ tres viajes y 10,00 € el abono de siete viajes.

#### **8. EUSKERA.**

Según datos de EUSTAT del año 2021, en Eskoriatza los euskaldunes + cuasi-euskaldunes suponen el 76,9% de la población total. Por ello, y con el objetivo de incidir en el uso del euskera

especialmente entre la población infantil y las familias, se deberán cumplir las siguientes condiciones:

a) Rotulación

Toda la rotulación de los puestos de barracas, atracciones o puestos de venta deberá ser en euskera o bilingüe (euskeru/castellano). En los casos en que se opte por la rotulación bilingüe, se dará prioridad al euskera.

En caso de necesitar ayuda para traducir la rotulación al euskera, se podrá contar con la colaboración del servicio de euskera del Ayuntamiento de Eskoriatza.

b) Música

La música emitida será en euskera en un 75%. Además, no se podrán emitir canciones ofensivas con las mujeres, ni con letras que promueven comportamientos no cívicos.

Con el objeto de facilitar lo recogido en este punto, se ofrecen 3 playlist:

MÚSICA ADULTOS EN EUSKERA: <https://labur.eus/wpE4y> y <https://labur.eus/8BM4x>

MÚSICA INFANTIL EN EUSKERA: <https://labur.eus/zGs7Z> y <https://labur.eus/vbMtt>

Campaña BELDUR BARIK de Emakunde: <https://labur.eus/qwHMin>

## 9. IMÁGENES Y PUBLICIDAD.

Está totalmente prohibido el anuncio, exhibición, propaganda y/o publicidad de contenido sexista, xenófobo, político, religioso, étnico o de cualquier otra índole que atente contra la dignidad de las personas tanto en el recinto ferial como en la zona de viviendas. En caso de que el contenido expuesto sea valorado como ofensivo o que atente contra dicha dignidad, será responsabilidad de la empresa correspondiente el tapar dichos contenidos.

## 10. CERTIFICADO DE DELITOS DE NATURALEZA SEXUAL.

Todas las personas trabajadoras de las atracciones incluidas en el recinto ferial deberán aportar, 5 días antes de la apertura de la instalación, un certificado negativo del Registro Central de Delincuentes Sexuales, que acredite que carecen de delitos de naturaleza sexual. Este certificado deberá tener una antigüedad máxima de 6 meses. (*Ley Orgánica 8/2021, de 4 de junio, de protección integral a la infancia y la adolescencia frente a la violencia*).

## 11. CUIDADO DEL ENTORNO DE LA ZONA DE VIVIENDAS.

Se cuidará especialmente la zona de instalación de viviendas y su entorno, asegurándose de que se mantengan limpios en todo momento.

## 12. PREMIOS.

Queda prohibida la instalación de cualquier actividad en la que se vendan o repartan como premio cualquier clase de animal.

Asimismo, quedan expresamente prohibidos los premios de material pornográfico y todo tipo de

cohetes, petardos, pelotas lanza bolas, navajas y similares, así como elementos relacionados con el tabaco y el alcohol.

### **13. PENALIZACIÓN.**

El ayuntamiento de Eskoriatza se faculta la posibilidad de penalizar, con la prohibición de entrar en el recinto ferial durante 1 a 3 años, el incumplimiento de cualquiera de las condiciones recogidas en el presente bando, bien sean en relación a la actividad como en relación a su titular.

EL ALCALDE